

BESTELAKO XEDAPENAK

URAREN EUSKAL AGENTZIA

5895

EBAZPENA, 2024ko abenduaren 19koa, Uraren Euskal Agentziako zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez onartzen baita Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumen-arloari dagokion Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren zatiaren hirugarren zikloko Uholde Arriskuaren Atariko Ebaluazioaren dokumentua (UAAE).

1/2006 Legeak, ekainaren 23koak, 5. artikuluan eta hurrengoetan, Uraren Euskal Agentzia sortzen eta arautzen du, zuzenbide pribatuko erakunde publiko gisa, Euskadin uraren arloko politika aurrera eramateko helburuz, administrazioek eta erabiltzaileek parte hartzen duten erakunde bakar baten bitartez.

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren urriaren 23ko 2007/60/EE Zuzentarauari jarraikiz (uholde-arriskuen ebaluazioari eta kudeaketari buruzkoa, uztailaren 9ko 903/2010 Errege Dekretuaren bidez eraman zena estatuko ordenamendu juridikora), demarkazio hidrografiko bakoitzerako uholde arriskuaren atariko ebaluazioa (UAAE) egin behar da plangintza-ziklo bakoitzaren lehen fasean, eta ebaluazio horretan oinarrituko dira zuzentzarauan aurreikusitako hurrengo faseak.

Bestalde, 29/2011 Errege Dekretuak, urtarrilaren 14koak, Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoa mugatzen du, Uraren Esparru Zuzentzaraua betez (2000/60/EE).

Demarkazio horretako plangintza hidrollogikoa eta uraren kudeaketa bi erakundek egiten dute koordinaturik: batetik, Estatuko Administrazio Orokorrak, Kantauriko Konfederazio Hidrografikoaren bidez, erkidego arteko arrotan eskumena duenez; bestetik, Euskal Autonomia Erkidegoak, erkidego barruko arrotan lurraldeari dagokienez, Uraren Euskal Agentziaren bidez (administrazio hidrauliko eskuduna da, Uraren ekainaren 23ko 1/2006 Legearen arabera).

Kantauriko Konfederazio Hidrografikoak eta Uraren Euskal Agentziak Kantauri Ekialdeko Demarkazio osorako hirugarren plangintza-zikloko UAAE proiektua landu zuten (Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Saileko Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzarekin batera, Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldeari dagokionez), eta biek batera eta aldi berean egin zuten kontsulta publikoa, hiru hilabetez, 2024ko irailaren 3tik abenduaren 3ra arte.

Beste administrazio batzuen, interesdunen eta partikularren iradokizunak, ekarpenak eta proposamenak jaso eta aztertu ondoren, Kantauriko Konfederazio Hidrografikoak eta Uraren Euskal Agentziak bakoitzak izendatutako organoen esku utzi zuten dokumentua, beren eskumen-arloko Kantauri Ekialdeko Demarkazioaren zatiari buruzkoa behin betiko onar zezaten; eta, horrekin demarkazio osorako UAAE bakarra eratzeko.

Dokumentua Euskal Autonomia Erkidegoko Babes Zibileko Batzordeari helarazi zitzaion, eta 2024ko abenduaren 17an egin zuen bileran aldeko txostena eman zuen aho batez. Beraz, Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumen-arlo eksklusiboari dagokionez, Uraren Euskal Agentziak dokumentua Erabiltzaileen Batzarraren esku jarri zuen (2007/60/EE Zuzentzarauak eragindako alderdietan eskumena duten agintari guztiak biltzen ditu), eta 2024ko abenduaren 19an egindako bileran onetsi zuen.

Uholde-arriskuen ebaluazioari eta kudeaketari buruzko uztailaren 9ko 903/2010 Errege Dekretuaren 7. artikuluan xedatutakoaren arabera,

EBAZTEN DUT:

Lehen artikulua.– Kantauri Ekialdeko Demarkazioko Uholde Arriskuaren Atariko Ebaluazioaren (UAAE) dokumentua onartzea, Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumenekoak diren erkidego barruko arroi dagokienez.

Bigarren artikulua.– Espainiako Gobernuari igortzeko agintzea; batetik, Europako Batzordeari jakinarazi diezaion eta, bestetik, demarkazio osokoan txerta dezan.

Hirugarren artikulua.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadin agintzea.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko abenduaren 19a.

Uraren Euskal Agentziako zuzendari nagusia,
ASIER LOPEZ ETXEBARRIA.